

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK

#udaltop18

Euskararen Biziberritzea Araban: Justizia Linguistiko beteko ariketa

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA

EUSKALTZAINDIAREN SUSTAPEN BATZORDEKO KIDEA
ETA EBA PROIEKTUKO KOORDINATZAILEA

IRATI ICIAR MADINABEITIA

EUSKALTZAINDIAREN SUSTAPEN BATZORDEKO KIDEA
ETA EBA PROIEKTUKO KOORDINATZAILEA

www.udaltop.eus



Euskararen Biziberritzea Arabian: Justizia Linguistiko beteko ariketa

#udaltop18

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA
EUSKALTZAINDIAREN SUSTAPEN BATZORDEKO KIDEA ETA
EBA PROIEKTUKO KOORDINATZAILEA

IRATI ICIAR MADINABEITIA
EUSKALTZAINDIAREN SUSTAPEN BATZORDEKO KIDEA ETA
EBA PROIEKTUKO KIDEA

AURKIBIDEA

Sarrera	3
Informazio-iturriak	4

Sarrera

Euskararen Biziberritzea Araban (EBA) izendatutako egitasmo hau, Arabaz, Arabatik eta arabarrentzat sortua da. Araban euskara biziberritzeko ahaleginetan azken hamarkadetan egin den bidearen kontakizuna osatu eta, xede hezitzaile zein aktibatzailearekin, gizarteari eta, bereziki, belaunaldi berriei horren berri ematea da egitasmo honen helburu nagusia.

Alegia, egindako bidea, egungo egoera eta bere biziraupen osasuntsurako baldintzak zein diren bildu eta gizartean zabaltzea, ezaguera horrek arabarren -batez ere, gazteen- hizkuntza horrekiko atxikimendua eta konpromisoa areagotuko dituelakoan, Araba euskaldunaren identitatea sendotu eta ahalduntzen laguntzeko.

EBA egitasmoaren bideragarritasuna ezinezkoa izango litzateke Arabako Foru Aldundiaren laguntza eta babes ekonomikorik gabe. Izan ere, egitasmoa errealitate bilakatzeko Arabako Foru Aldundiak EBArri diruz laguntzeko lehen hitzarmena 2024an sinatu zuen Euskaltzaindiarekin eta hurrengo hitzarmena 2025ean, zeinak 2025-2027 epealdia barne hartzen duen.

EBA Euskaltzaindiko Sustapen batzordearen proiektua da, eta definizio eta garapenean diharduen Talde Eragileak Arabako ordezkartzan dauka lan-gunea. EBArren Talde Eragilea une honetan honako kide hauek osatzen dute:

- Iñaki Martínez de Luna. *Euskaltzaindiaren Sustapen Batzordeko kidea eta EBA proiektuko koordinatzailea.*
- Irati Iciar. *Euskaltzaindiaren Sustapen Batzordeko kidea eta EBA proiektuko kidea.*
- Roberto González de Viñaspre. *Euskaltzaindiko Arabako ordezkaria eta EBA proiektuko kidea.*
- Iñaki Lazkano. *EBA proiektuko kidea.*
- Jokin Larrañaga. *EBA proiektuko kidea.*
- Iban Ruiz de Gauna. *Arabako ordezkartzako teknikaria eta EBA proiektuko idazkaria.*

EBArren informazio-iturriak ondokoak dira: erreferentzia bibliografikoak, datu estatistikoak, euskarak Araban biziberritzearen lekuko edo parte-hartzaile izan direnei egindako elkarrizketak (lekukotzak) eta biziberritze bide horretan sortu izan diren askotariko euskarriak (emanaldien kartelak, gomutagarriak, ekimen jakinen artxiboak, fitxak eta antzekoak). Baina, hasieratik lehentasuna eman zaio lekukotzak jasotzeari, biziberritzearen prozesuan protagonista izan ziren horien ahotsa jasotzeari, alegia.

Informazio-iturriak

1. Lekukotzak

Informazio kualitatibo edo kontakizunei dagokienez, euskarak Araban duen biziberritzearen lekuko edo parte izan diren hainbat pertsonari elkarrizketak egin zaizkie. Bideragarriak diren neurrian, elkarrizketak binaka edo hirunaka egiten dira, era horretan jasotako informazioak aberasgarriagoak eta osatuagoak direlakoan. Saio horiek bidez grabatzen dira, gehienbat.

Audio-grabazioak: Lekukotzei dagokienez, bideo-grabazioak egiten hasi ahala EBAko Talde Eragilean jabetu ginen, hainbat lekuko ez zegoela prest bideo grabazioetan agertzeko, baina, propio galdetuta, audio-grabazioen bidez lekukotza emateko prest agertu ziren.

Solaskideak aukeratzeko orduan, Talde Eragileak zehaztutako irizpideak kontuan hartu dira: elkarrizketatuaren adina, generoa eta jardun mota.

1.1 LEKUKOTZEN BANAKETA GEOGRAFIKOA

2024an bideo-grabazio guztiak Gasteizen burutu ziren, bertoko euskararen biziberritzearen prozesuaren lekukoekin eta protagonistekin. 2025ean, berriz, EBAREN Talde Eragileak eremua hedatzea erabaki zuen: alde batetik, Gasteizko lekukoekin zein protagonistekin bideo-grabazioak egiten jarraitzea, eta, bestetik, Arabako hainbat kuadrillatara zabaltzea.

Honenbestez, 2025ean Gasteizen, hain zuzen, Euskaltzaindiaren ordezkartzan, 4 bideo-grabazio berri burutu ziren. Lekukotza berri hauekin Gasteizko euskararen biziberritzearen historia osatzen jarraitu dugu, baina ez da guztiz baztertzen 2026an Gasteizen bertan bideo-grabazio berri batzuk egitea. Izan ere, Gasteizko kontakizuna jaso ahala, lekukoek beste hainbat protagonistaren berri eman digute.

Aldagai komunak partekatzen baditu ere, azken 60 urteotan eman den euskararen biziberritze prozesua oso ezberdina izan da Arabako zortzi kuadrilletan. Izan ere, kuadrilla bakoitzak berezko nortasuna dauka, eta, funtsean, oso errealitate sozial ezberdina. Hortaz, euskararen biziberritzeari dagokionez, ongi diseinatu behar da kuadrilla bakoitzaren garapena eta banan-banan jaso.

Horretarako, 2025ean, bideo-grabazio saioak Arabako bi kuadrillatara hedatu ziren: Gorbeialdeara eta Arabako Errioxara, hain zuzen. Guztira lau bideo-grabazio egin ziren bi kuadrilla horietan. 2026an beste hiru kuadrillatara lekualdatuko gara bertoko biziberritzearen berri izateko lekuan lekuko testigantzei esker, eta, hala Trebiñu, Arabako Lautada eta Aiaraldea izango dira protagonistak.

Datorren urteari begira Araban geratzen zaizkigun bi kuadrilletara lekukotzak jasotzera joatea da gure asmoa, Añanako kuadrillara eta Mendialdeko kuadrillara.

Arabako kuadrilletan jaso diren eta jasotzeko bidean dauden lekukotzak, ezingo lirateke jaso kuadrilletako euskararen teknikarien laguntzarik gabe, haiei esker lortu baitira.

Hortaz, 2025 urtearen amaieran audio-grabazioak egiten hasi ginen. Orain arte, bost lekukotza jaso dira, baina helburua da gutxinaka-gutxinaka kopuru hori handitzea.

Honela, 2024-2025 tartean 16 bideo-grabaketa egin dira eta 2 audio-grabaketa, guztira 38 pertsonen lekukotzak jaso ditugularik.

1.2. EDUKIEN EDIZIOA ETA IRISGARRITASUNA

Arestian aipaturiko euskararen inguruko Arabako Datu Estatistikoak zein bideo-grabazioak Euskaltzaindiaren webguneko [EBAgunera](#) igo dira, bertan ikusgai daudelarik:



2. Datu estatistikoak

Datu estatistikoei dagokienez, Iñaki lurrebasoren “*Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguitikazko tresna metodologikoak garatzen: Euskal Herrirako aplikazio praktikoa*” tesian¹ oinarrituta, Talde Eragileak ikerlari horri honako eskaera egin zion: haren tesian oinarritutako analisiak Arabara egokituak eta 2021eko datuekin eguneratuak izatea. Arabaren egoera alderatu ahal izateko, Euskal Herria, EAE, Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta Gasteizi buruzko hainbat datu ere eskatu zitzaizkion.

3. Bestelako informazio-iturriak

EBAREN helburuen artean dago EBAREN Datu Base osatua sortzea. Horretarako, eduki estatistiko, bideo zein audio bidezko grabazioez gain, Araban euskararen biziberritzean garrantzitsuak diren beste lekukotza batzuk ere jasotzen ari dira; esate baterako, argazkiak, agiri-fundazionalak, ekimen eta elkarleen dokumentazioa... Horiek ezarian jasotzen ari gara, maiz lekukoek propio ekarrita, eta digitalizatzen ari gara etorkizunean kontsultagarri egon daitezen era antolatu batean.

¹ Euskaltzaindiak 2024ko abenduan argitaratu zuen Iñaki lurrebaso Biteriren lana: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_argitalpenak&Itemid=1217&view=katalogoa&lang=eu-ES&edukia=fitxa&argitalpena_id=787. Tesia EHU-UPVko ADDI gunean ere eskuragarri dago 2023ko otsailaz geroztik: <https://addi.ehu.es/handle/10810/60061>.

4. Informazioa gizarteratzea

Xede hezitzailea zein aktibatzailea du helburu nagusi EBak, eta, horretarako, gizarterari eta, bereziki, belaunaldi berriei bildutako edukiak jakinaraztea da egitasmo honen azken jomuga. Zabalpen hori gauzatzeko ALEA komunikazio taldearekin elkarlanean ari gara EBaren komunikazio planaren zutabeak jartzeko. Horretan oinarrituko gara EBaren zabalpena egiteko gizarterean.

Horren baitan jasotako informazio guztiarekin euskararen biziberritzearen kontakizuna osatzen hasi gara, ondoren, esan bezala, gizarterean zabaldu ahal izateko. Kontakizun hori beraz, izango da EBaren komunikazioaren ardatzetako bat, baina ez bakarra.

EBaren edukien difusiorako hainbat xede-talde zehaztu baditugu ere, hezkuntza izango litzateke lehenengo fase batean aukeratutako eremu nagusia. Izan ere, harremanetan hasi gara hezkuntza-eremuko hainbat eragileekin elkarlanean, besteak beste ikas-unitateren bat abian jartzeko aukera aztertzeko.

EBaren jendaurreko aurkezpenei dagokienez, batetik, prentsaurreko bat egin zen Arabako Foru Aldundian 2025eko ekainaren 6an, eta, bestetik, Arabako erakunde eta euskalgintzako eragileentzako aurkezpen bat Euskaltzaindiaren Arabako ordezkartzan 2026ko apirilaren 21ean..

Aurreko aurkezpenak ez ezik, beste hiru saio egin dira EBaren berri eman nahirik: 2025eko Euskararen Egunaren harira, Asparrenan; 2026ko urtarrilaren 29an, Agurainen, eta apirilaren 23an Gasteizko Olabide ikastolan.

Aurrerantzean ere, aurkezpen berriez gain, beste hainbat ekimen-mota abiatzeko eta burutzeko asmoa dago.

udal**top**

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

www.udaltop.eus